



## ■ BERRIAK ELKARTEA

# Modelo hernaniarren bila kasting irekia gaur

Berriak elkarteko 17 komertzioak moda pasarela antolatu dute urriaren 24rako, eta bertan parte hartzeko modelo bila dabilta. Horretarako kastinga egingo da gaur, 19:00etatik 21:00etara Biterin.

MODA pasarela batean parte hartu nahi duen edonork gaur du aukera ederra. Berriak elkarteko kasting irekia antolatu du, hernaniarren artean modeloak bilatzeko. Ez da esperientziarik eduki behar, eta adin guztietako jendeak hartu dezake parte.

Gaur izango da, 19:00etatik 21:00etara bitartean, Biterin.

### Aurretik, fitxa bete

Kastingean parte hartzeko izena eman behar da aurretik, fitxa bat beteta. Fitxa hori Biterin, edo kastinga antolatu duten dendetan eskatu.

### Produktuak erakusteko pasarela

Hernaniko 17 komertzioak antolatu dute moda pasarela, dendetan salgai dituzten produktuak hernaniarrei erakusteko: Estetika Arrosak, Nekane Edergintza, Biokbi Optika, Federopticos Hernani, Hoki Len-

tzeria, Valen moda denda, Distira, Bolsos y complementos Kaixo, Complementos Marna, Ilargi, Kera, Kuluska, Urrats Oinetakoak, Ibai-Mendi, Feli Dekorazioa, Oihala, eta Ikusi-Makusi.

Urriaren 24an egingo da pasarela, Atsegindegina. ■

## ■ ALBOKARIEN HERNANIKO XXI. TOPAKETA

# Euskal Herriko albokariak bilduko dira Hernanin

Albokarien Topaketa ospatuko da aste honetan Hernanin. Ostegunean, Bitartean folk musika taldeak kontzertua emango du Biterin, doan, eta larunbatean, egun osoko festa izango da herrian.

ASTE honetan ospatuko da Albokarien Hernaniko XXI. Topaketa. Bi ekitaldi nagusi izango dira: kontzertua, etzi, eta festa eguna, larunbatean.

### 'Bitartean' taldearen emanaldia, etzi

Alboka Topaketaren barruan, kontzertua emango du 'Bitartean' folk musika taldeak, ostegunean, 20:00etan Biteri kultur etxean. Hernaniarrek osatutako taldeak bere lehenengo diskoa aurkeztuko du; *Bidean*. Kontzertua doan izango da, eta diskoa erosteko aukera ere izango da.

### Larunbatean, festa

Larunbatean, berriz, Euskal Herri osoko albokariak etorriko dira Hernanira; kalejira, bazkaria eta emanaldia izango dira. ■



Euskal Herriko hainbat txokotatik etorriko dira alboka-joleak Hernanira, larunbatean.

## ■ UR MOZKETA

### Urik ez Plaza Berritik behera

Gaur gaueko 22:00etatik bihar arratsaldeko 17:00ak ingurura arte ura moztuko dute Plaza Berritik beherako etxeetan, Udalak kalkulatu duenaren arabera. Karabeleko zubi berriaren obren ondorioz moztuko da ura. ■

## ■ Kiroldegia itxita

Ur mozketa dela-eta, kiroldegia itxita egongo da bihar goizean, eguerdiko 12:00ak arte. ■

## ■ SAN JOAN KONPARTSA

### Bideo emanaldia eta bilera, gaur

San Joan Konpartsak zita jarri du gaur, 19:00etan Sandiusterrin. San Joanetako konpartsak DVDa proiektatu eta urte bukaerara arteko ekintzen berri emango da. ■

## ■ EH BILDU

### Hitzaldia bihar, Kutxabanki buruz

Hernaniko EH Bilduk antolatuta, hitzaldi-solasaldia izango da bihar, 19:30etan Biterin. Bertan izango da Antxon Izagirre hernaniarra, Kutxabanken batzarkidea, eta Kutxabanki egindako proposamenaren inguruko azalpenak emango ditu. ■

## ■ PALA

### Izena emateko azken eguna

Gaur da azken eguna emakumeentzako paleta ikastaroan izena emateko. Ikastaroak, berriz, bihar hasiko dira; 19:00etan kiroldegian. Infanti-lak ere bihar hasiko dira, 15:45etan; eta benjaminak 17:30etan, Elizatxon. Izena eman edo informazio gehiagorako: 625 033 314 / [hernanikopalistak@gmail.com](mailto:hernanikopalistak@gmail.com). ■

## ■ PLENOA

### 15 puntu, gaur

Plenoa bilduko da gaur, 19:00etan. 15 gai landuko dira: Andrekaleren izendapena, alkatteen aukeraketa zuzenerako mozioa, taxi zerbitzuaren tarifak, Kutxabanki buruzko mozioa... ■

<b>EDOZEIN KLASERAKO LURRAK JARTZEN DITUGU</b>	<b>PVC MOKETA LAMINATUA PARKETA</b>	<b>PROCOLAR ZENTRUA MARGOAK</b> Landaribar, s.l.
<b>PAPER PINTATUETAN 10% DTO</b>	<b>EROSKETAK ETXERA BIDALTZEN DIZKIZUEGU</b>	asteleheneretik ostirora 7:30 - 13:00 / 15:15 - 19:00 Larunbatetan 9:00 - 13:00
Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe	Laminatua AC4 Hidrofugoa kolokatua eta guzti. <b>26,90€/m<sup>2</sup></b>	943 552 131 KARDABERAZ 45, HERNANI

**ITXASPE**  
Arrandegia  
Antziola 5  
Tel.: 943 330 365  
Móbil: 653 74 10 97  
20120 Hernani

**OINDI**  
taberna  
**NAGUSIA, 25 HERNANI**  
943 557 509

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622  
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103  
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Aldabe Perkaitezgi 8 (Antziola) 943 336022 • Gauez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

**EGURADIA** GAUR Eguraldiak nahastuta jarraituko du. Zeruak lainotuta egongo da, eta zaparradak botako ditu, bereziki goizean. Gero atertzera egingo du. Min.16°/Max.20°

**BIHAR** Zeruak lainotuta jarraituko du, eta kostatik gertu euri arina egin dezake. Iparraldeko haizearekin jarraituko dugu. Min.16°/Max.22°



Sokatiran ere aritu ziren, Wukro eta Hernaniko haurrak.

## ■ HERNANI WUKROREKIN

### Beselam yerrakebena, Wukro!

Laster arte, Wukro! Atzokoa izan zuten Hernanin egoteko azken eguna, Wukrotik etorritako 15 gaztetxoek. Sei egun pasa dituzte hemen, eta orain Nafarroan eta Madrilan izango dira. Urriaren 7an bueltatuko dira Wukrora. Joan aurretik, institutuan izan ziren atzo. Lehenengo, Santa Barbara eraikineko jangela eta sukaldea ezagutu eta jakiak prestatzen ikasteko aukera izan zuten. Eta ondoren, Hernaniko gazteekin batera kirola eta jolasak egin zituzten. Sasoi ederrean daudela erakutsi zuten denek, sokatiran! ||

## ■ SOS KAXMIR

### Argazki erakusketa eta diru bilekta, Kaxmirreko kaltetuak laguntzeko

Hil honen hasieran uholde handiak izan dira Kaxmirren (India iparraldean eta Pakistan ekialdean). Hernaniko bikote batek gertutik eza-gutu du egoera, eta SOS Kaxmir elkarteak sortu dute, uholdeek eragindako kaltetuak laguntzeko. Horren harira, argazki erakusketa jarriko dute ostiraletik igandera bitartean, Plaza Berrin. Elkartearekin harremanetan jartzeko: [soskaxmir@gmail.com](mailto:soskaxmir@gmail.com). Laguntza emateko, berriz, kontu korrante bat ireki dute: ES61 0081 4240 9100 0110 4010. ||

## ■ EREÑOTZU

### Aranora igoera eta bazkaria, larunbatean

Aurten ere antolatu dute Ereñotzun Aranora igoera bizikletarekin. Larunbatean izango da, eta bertan parte hartzeko nahikoa da 11:00etan semaforo ondora azaltzea. Igoeraren ondoren, Aranoko Kontsejun bazkaria egingo dute, 14:00etan, eta bertara ere nahi duena joan daiteke, baina izena eman behar da Irrintzi tabernan, bihar arte. ||

## ■ HAUR ESKOLA

### Matrikula irekita, bihartik

Bihar irekiko da Haur Eskolako matrikula epea, urriaren 10era arte. Horretarako, Haur Eskolatik pasa, edo deitu 943 55 29 91 zenbakira. ||

## Eskelak

Eskelak itunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskola jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

## IRAGARKI MERKEAK

2 gela alokagai Hernaniko erdigunean. Deitu: 659 363 944

Emakume euskaldun hernaniarra lan bila, etxeko lanak egin eta helduak zaintzen. Deitu: 679 368 005

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

**JON GARMENDIA OLARRA**

Herenegun hil zen Hernanin, 49 urte zituela

Emaztea: Rosa Santos; seme-alabak: Uxue eta Eneko; gurasoak: Juan Bautista eta Juana; ezkon gurasoak: Antonio eta Isabel; anai-arrebak: Xabier eta Itziar, Eneko eta Thais, Eunete eta Iñaki; Inma eta Josi, Isa eta Patxi; osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Familiak eskerrak emanaz HERNANIKO ORBEGOZO FUNERARIA TANATORIOAN hartuko zaituzte **GAUR, ASTEARTEA, 09:30etatik 12:00etara.**

Hernanin, 2014ko irailaren 30ean

**PRUDENCIO BEITIA GOMEZ**

JAUNA "TONI"

Atzo hil zen Hernanin, 66 urte zituela

Seme-alabak: Arantxa eta Lois; iloba: Ivan, eta gainerako ahaideak.

Hernanin, 2014ko irailaren 30ean

Helbidea: Sagastialde, 14  
OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da goizeko 11:00ak arte.

**PRUDENCIO BEITIA GOMEZ**

Ezustean joan zara gurekin agurtu gabe. Beti izango zara, Prudencio lagun paregabe.

**ZURE LAGUNAK**

Hernanin, 2014ko irailaren 30ean

**JON GARMENDIA OLARRA**

Beti izango zaitugu gogoan.

**ENEKOREN LANGILEKO GELAKO LAGUNAK ETA GURASOAK (6B)**

Hernanin, 2014ko irailaren 30ean

**JON GARMENDIA OLARRA**

Une zailenei aurre eginez goizetik irribarretan. Kafe, bazkari eta afari alaiak oroimenean. Gure gogoan izango zara bai burua ta bihotzetan. Lankidetik lagun izatera igaro ginen benetan.

**MAITE, BEGOÑA, OLATZ, IDOIA, TXITXO, MIKEL ETA PELLO**

Hernanin, 2014ko irailaren 30ean

**JON GARMENDIA OLARRA**

Hernaniko kaletan uso umil Nafar lurretan arrano ixil Eneko Aritzak Uxuen aldatutako Arrosa lirain. Jon, beti izango zara gurekin.

**DEL VALLE DE LERSUNDI OLARRA SENDIA**

Hernanin, 2014ko irailaren 30ean

**JON GARMENDIA OLARRA**

Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin oroimenean izango zara zu beti gurekin.

**TOLAREA SAGARDOAREN KOFRADIA**

Hernanin, 2014ko irailaren 30ean

**JON UGUTZ GARMENDIA OLARRA**

**HERNANIKO UDALA ETA LANGILEAK**

Hernanin, 2014ko irailaren 30ean

**JON GARMENDIA OLARRA**

Hire izaera xume eta lagunkoia beti izango diagu gogoan. Besarkada bat familiari.

**HERNANIKO UDALDEKO ETA GIZARTE ONGINTZAKO LABeko SAIL SINDIKALA**

Hernanin, 2014ko irailaren 30ean